



BAKARDADEAREN ITZALA ZAHARTZAROAN

Aitona-amonen bizitza zahar-egoitzetan

GAUR EGUN, GEROZ ETA AITON-AMON GEHIAGO BIZI DIRA ZAHAR-EGOITZETAN. HAUEN BIZIMODUA GEROZ ETA ISOLATUAGOA BIHURTUZ.

Adinaren ondorioz, laguntza behar dute eguneroko jardueretan, eta askotan, familiarekin dituzten harremanak urrundu edota galdu egiten dira. Egoitza hauetan bizi diren askok bizimodu lasaia mantentzen dute zaintzaileen laguntzarekin, baina bakardadeak eta bisita faltak batzuetan hauengan asko nabari dira.

Ezin dugu ahaztu, hauek izan direla gure haurtzaroa alaitu dutenak, ipuinak kontatu dizkigutenak, eta gure lehen pausoak eskutik helduta gidatu zizkigutenak. Gure bizitzako une garrantzitsuenetan egon dira. Baina orain, non gaude gu hauek gure laguntza behar dutenean?

"Agian gehiago eta hobeto entzun beharko genieke, eta haien bizitzako azken urteak ahalik eta atseginenak izan daitezen ahalegindu"

-M^a Isabel Tornero López, geriatra medikua



Haurrak zaintzeko aitona-amonen nekea benetakoa da. Batzuek "aitona esklaboaren" sindromea deitzen diote, non aitona-amonak gero eta behartuago ikusten diren zaintza lanak bere gain hartzera, Aitona-amonak batzuek goizean bilobak, eskolara eramaten dituzte, jaten ematen diete eta, batzuetan, bilobak zaintzen geratzen dira gurasoak bidaian doazenean. Lan horiek ahituta uzten dituzte, eta beren osasunari ere eragin diezaioke.



AITON-AMONEKIN HIZKETAN

Andoaingo zahar-egoitzan egon gara, bertako giroa nabariz eta bertako aitona-amon eta langileekin hitz eginez. Gure ilusioa ikusi eta gero, argazkian ateratako hiru emakume hauek beraien ikuspegia ezagutzera ematera animatu dira elkarrizketa baten bidez.



Paula Mujika Oronoz, Basilisa Barcina Cortes eta Arantxa Urkizu Lazkano.

Zer iritzi zenuten zaharren egoitzei buruz?

“Iritzi txarra. Ni ez nintzen inoiz egoitza batean egon, baina lehendik ere entzunak nituen batzuen gauza txarrak, Eibar eta Hernanikoa, adibidez, eta ez nuen horrelako toki batean bukatu nahi.”

“Gehien inporta zitzaidana gela indibidual bat izatea zen, inorekin ez partekatzea. Hernanin plaza eskaini zidatenean, atzera bota nuen, ez zitzaidalako batere gustatu, eta nire errainak egoitza hau aurkitu zuen.”

“Senarrarekin etorri nintzen hona, baina handik gutxira hil egin zen eta bakarrik geratu nintzen. Orain lasai nago, eta eskertuta ondo sentitzen naizen leku batean amaitu dudalako”



Andoaingo zaharren egoitza

Nola sentitzen zarete hemen bizitzen?

“Ni lehenengo egunetik pozik nago. Hona etorri aurretik etxeko lanak egin behar nituen, eta orain ez dut ezer egin behar. Dena egina dago, hotel batean bezala. Izan ere, atera zaitezke, berdin irten zaitezke, kalera irten ohi gara eta beti ematen didate baimena igande bat, egun bat edo Gabonetan familiarekin pasatzeko. Eta jendea nahi duenean etor daiteke bisitan.”

“Egun batzuetan gaizki sentitzen naiz, eta beste batzuetan ondo eta gustura. Ez da dena perfektua. Egun batzuetan oso ondo jaten duzu, oso gustura. Eta beste batzuetan "uf".

Nolako ekintzak egiten dituzue hemen? Zein da gehien gustatzen zaizuenena?

“Goizez egunero gimnasia egiten dugu, ostegunetan izan ezik. Astelehenero zinema daukagu eta memoria ariketak izaten ditugu, asteazkenetan, Arrosarioa eta meza, eta ostegunetan, bingoa. Gainera, hilean behin postreak egiten ditugu, aurrekoan kruasanak egin genituen. Hori asko gustatzen zaigu, denoi jatea asko gustatzen zaigulako.”

Zuen familia bisitatzera etortzen da?

Bai, astean bi alditan etortzen dira, normalean, seme-alabak asteazkenetan eta bilobak ostegunetan. Gero, Hernanira joaten gara zerbait hartzera”


“Bai, batzuetan, nire seme-alabak etortzen dira, eta kanpora joaten gara bazkaltzera. Baina, batzuetan, beraiek ez dute etorri nahi, eta nik ere ezin diet behartu”

Ilusiorik baduzue?

“Bai, gure oraingo ilusiorik handiena, gure egunerokoan zerbait berezia prestatuta edukitzea da, adibidez, ostegunetan, abeslari batzuk etorriko dira eta irrikan gaude”

LA SALLE DBHKO IKASLEEN TESTIGANTZAK


Zahar-etxean bizi diren aitona-amonen ikuspuntua eta bertako langilearena ikusi ondoren, gure ikastetxeko DBH 3 eta 4-ko ikasleei galdeketa bat egin genien, horrela gaiak biltzen dituen 3 alderdiren iritzi eta bizipenak ditugu. Hauek izan dira gure inkestaren eginez atera ditugun grafikoak:



Noizbait txikitan zaindu zaituztete aitona-amonetik?

Grafikoan argi ikusten den bezala, La Salleko ikasleen ia portzentaje osoak jaso du haien aitona-amonen zaintza. Zehazki %96,1k baiezkoa erantzun du eta falta den %3,9ak ezezkoa.

Portzentaje hauek pertsona gehiengoen aitona-amonekin igarotzen duten denbora haien zaintzapekoan izaten dela erakusten du, haiei lana suposatuz. Noski gustura egongo direla arratsalde horietan, baina denbora igaro ahala, karga edo obligazioa bilakatzen da. Ez al zaizue iruditzen errua gurasoena dela? Umeak zaintzeko zaintzaileak badaude, ludotekak, baita eskolaz kanpoko jarduerak ere. Baina ikusten denez, errazagoa da aitona-amonak kondenatzea. Nahiz eta egia den batzuek ezin diotela ekonomikoki egoera horri aurre egin.



Aitona-amonak izanez gero, astean zenbat aldiz bisitatzen dituzue?

Alboan ikusten den inkestak adierazten du gaztaroan zenbateko presentzia duten bilobek haien aitona-amonen bizitzetan. Ikaslearen %53,4k astean bi aldiz bisitatzen dituzte, beste %41,7k, astean hiru aldiz eta geratzen den ehunekoak, %4,9ak hain zuzen, astean lau egunetan ikusten dituzte.

Inkesta honen emaitzetatik argi dago gazte gehienek, ziurrenik haurtzaroan aitona-amonekin denbora asko eman zutenek, gero eta gutxiago bisitatzen dituztela. Gehienek astean bizpahiru aldiz bisitatzen dituzte aitona-amonak, eta txikienei ia egunero. Zenbat eta gehiago hazi, orduan eta gehiago ahazten gara haietaz.

LANGILE BATEN IRITZI PROFESIONALA



**ZURIÑE LORENZO
AMIAMA**



Zuriñe Lorenzo Amiama, Andoaingo San Juan Bautista zahar-etxeko langilea da. Bere lanarekin konprometituta dago eta adinekoei laguntzeko bokazioa du. Egoitzan lan egiten duenean, ahalik eta denbora onena eskaintzen saiatzen da, jolas eta aktibitate berriak antolatuz. Bere izenaren azpian agertzen den Qr-an, bere ikuspuntua azaltzen du zaintzaren arloan, bertako egoera eta giroa adieraziz.

“GERO ETA PERTSONA GAZTEAGOAK SARTZEN DIRA ZAHAR-EGOITZARA”

Horrekin guztiarekin, ondoriozta dezakegu, gaur egun, gero eta atentzio gutxiago ematen diegula gure familietako adineko pertsonen. Pertsona hauen zaintzan aritzen diren langileen beharra ez dugu sentitzen gure familiako pertsona heldu batek behar duenera arte. Zuriñe Lorenzok esan duen bezala, gero eta pertsona gazteagoak sartzen dira zahar-egoitzara, desgaitasun edo behar berezi batengatik. Hau kontuan hartuta, pertsona helduen zaintza umeen zaintza bezain garrantzitsua dela esan dezakegu, eta beraiek eskainitako zaintza hori bueltan saritu behar zaie.

Honetaz gain, zahar-egoitzako erabiltzaileek esan diguten moduan, hauek maitatuak, zainduak eta zoriontsuak sentitzen dira.

